

QUARENTTONA BERTSO KANTATUEN LEHIAKETAREN ARAUDIA

1. Durangaldeko Bertso Eskolak bertso kantatuen lehiaketa antolatu du, etxean eta aspertuta zaudeten (edo ez) guztien entretenigarri.
2. Bertsoak berriak eta inon argitaratu gabeak izan behar dira.
3. Bertsoak ez dira idatzita aurkeztuko, MP3 formatua edukiko duen audio fitxategi batean baizik. Audioaren luzera ez da 6 minututik gorakoa izango. 6 minutu baino gehiago dituzten audioak ez dira lehiaketan sartuko, ezta beste formatu batean aurkeztutakoak ere.
4. Lanak emailez durangaldeko.b.e@gmail.com helbidera bidaliko dira, atxikitako dokumentu moduan, apirilak 18a baino lehen. Emailean argi eta garbi adierazi beharko dira lanaren izenburua, egilearen izen-abizenak, adina eta herria. Atxikitako dokumentuaren izena lanaren izena izango da.
5. Egile bakoitzaren esku geratzen da bertso kantatuen audioak nola eta zerekin osatu.
6. Edonork aurkez dezake bere lana, eta lanak ez du zertan egile bakarra izan, taldean egin daiteke. Hala ere, pertsona bakoitzak gehienez audio bakarra aurkez dezake (izan taldean edo indibidualki).
7. 2 maila bereiziko dira: 16 urtetik behera eta 16 urtetik gora. Independenteki, durangaldeko lan onenak ere saria izango du, eta publikoak ere bozkatzeko aukera edukiko du epaimahaiak hautatutako 10 lanik onenen artean.
 - a. Sariak *:
 - a.i. 16 urtetik behera:
 - 1. saria: 150 €-ko bonua Durangoko Hitz liburudendan gastatzeko.
 - 2. saria: 75 €-ko bonua Durangoko Hitz liburudendan gastatzeko.
 - a.ii. 16 urtetik gora:
 - 1. saria: 400 €
 - 2. saria: 200 €
 - a.iii. Durangaldeko onena:
 - 16 urtetik behera: 50 €-ko bonua Durangoko Hitz liburudendan gastatzeko.
 - 16 urtetik gora: 150 €
 - a.iv. Publikoaren saria: 200 €

*: publikoaren saria izango da besteekin metatu ahal izango den bakarra. Gainontzean, lan berberak ez du sari bat baino gehiago jasoko.

8. Publikoaren saria honela erabakiko da: aurkeztutako lan guztien artean, epaimahaiak 10 lanik onenak hautatuko ditu, eta horiek zabalduko ditu Durangaldeko Bertso Eskolaren Twitter kontuan (@durangaldekobe). 10 txio horietatik "atsegin dut" gehien lortzen dituen txioak eramango du publikoaren saria. Lanak apirilaren 25ean zabalduko dira, eta maiatzaren 2an amaituko da bozkatzeko epea.
9. Durangaldeko bertso eskolak lan hauek sarean zabaltzeko aukera edukiko du, horretarako baimen berezirik eskatu behar izan gabe (publikoaren saria bideratzeko beharrezkoa izango da, besteak beste). Durangaldeko Bertso Eskola ez da beste inork

zabaldutako lan hauei emandako balizko erabileren erantzule izango.

10. Sarituen izenak maiatzaren 3an publikatuko dira aipatutako Twitter kontuan (@durangaldekobe). Egoeraren eboluzioaren arabera erabakiko da sari-banaketa publikorik egingo den eta noiz.
11. Sari banaketaren ostean, egile bakoitzak nahieran egin ahalko du bere lanaren zabalkundea. Bitartean, anonimotasuna hausten duen zabalkunderik ez da onartuko.
12. Lehiaketan parte hartzeak baldintza hauek onartzea dakar.